

ARAUDIA

- Norbere osasun egoerara eta egungo sasaira egokitu behar dira jarduera eta jarduna. Norbere buruarekin kontsekuenteak eta zintzoak izan behar gara.

- Gailurrera iristeko egindako bidearen desnibela 400 metro baino gehiagokoa izan behar da.

Jarduerak 120 minutu iraun behar ditu, joatea eta itzultzea barne.

- Eguneko eta txangoko gailur bat bakarrik hartuko da kontuan. Beraz, gutxienez bost irtenaldi egin beharko dira. Gailurrak ondoz ondoko egunetan egin daitezke. Tontor bat behin bakarrik kontuan hartuko da, ezin dira tontorrek errepikatu.

- Izen-emateak banaka egin behar dira, eta norbera ageri den argazkiak aurkeztu behar dira. (Argazkiak errepikatzea onartuko da, pertsona bat baino gehiago ageri badira).

- UPV/EHUkoak ez direnak ezin dute programan izena eman, baina unibertsitateko kideei lagun diezaiekete ibilaldietan.

- Bi lauhilekoetako gailurrak batu daitezke.

- Pertsona bakoitzak 2 lauhilabetetan har dezake parte. Lauhilabete baten 10 gailur edo gehiago egin daitezke.

- Kredituak eskatzeko orduan, lauhilabete baten erabiltzen ez diren gailurrak kontuan izan daitezke hurrengo lauhilabetean.

- Jarduera hau kredituak lortzeko baliogarria da. 0'5 kreditu lor daitezke 5 gailur egiteagatik. Lauhilabeteke kreditu 1 gehienez. 2 kreditu kurtso akademiko osoan.

